

Ana Urkiza Ibaibarriaga

Utopia eraikitzeko tenorea

Joxe Azurmendiren heriotzarekin gure herriaren pentsamenduaren urrezko mendea itxi da. Nahiz eta XXI. mendean aski sartuta joan den, eta XXI. mendearen lehen laurdenean ere oso aktibo egonik, XX. mendean euskaldunok herri gisa izan ditugun galderei, kezkei eta arazoiei erantzun dien pentsalaria izan da Azurmendi, Joxe Migel Barandiaran eta Jose Maria Arizmendiarrarekin batera.

Azurmendiren heriotzarekin, euskal pentsamenduaren beste aldi historiko batean sartzen gara, halaberharrez. XX. mendeko pentsalariak egiteko utzi zigutena eraikitzeko aldian, hain zuzen ere. Herri bat, alegia, eman dizkiguten oinarrietatik abiatuta eta ikuspegi sekularrago eta feministago batetik.

Barandiaranek euskal balioak bizitzeko modua erakutsi zigun; Arizmendiarrak gure buruaren jabe eta nor izateko lan egiteko era bat; eta Azurmendik gure herriaz galdetzeko eta gure herria ulertzeko modu bat. Baita herria birpentsatzeko zimenduak eman ere.

Azurmendik aztertu eta idatzi zuen guztitik, eta egun euskal komunitatea berreskuratu eta birsortzeko daukagun premia kontuan hartuta, pentsalariarenak diren bi ideia gailen ekarri nahi nituzke lerrootara: lehenbizikoa, gure arazo nagusia puskatuta egotea dela zioena. Eta halaxe delako gaur ere, barrutik zein kanpotik.

Urgentea zela zioen «euskaldunok geurea eta geurea bakarrik izango den mundu espiritual bat sortzea: geure kontuekin, geure mitoekin, geure pentsamenduaren azterketarekin...». Geurea eta geuretzat bakarrik eskusiboa den barne mundu bat sortzea, alegia.

Idea horretan bat egiten zuen Barandiaranek «ez gara geure baitara-koak» ideiarekin. Narrazio sinbolikoek eta herri kontakizunek bizitzen

laguntzen zutela esaten zekien Barandiaranek, izanaren iturriak eza-gutzea dakarrelako, herri baten zutabe diren ber. Ideia horri helduta indartzen zuen Azurmendik gure eginkizuna mundu puskatu bat nola berregin eta nola errekupeatu behar den pentsatzean zetzala, indartsu azpimarratuz, hala ere, «berriro esklabo bihurtu gabe».

Gure herriak badaukala kondairarik, baina oraindik ere pobrea dela kulturan, gogoraraziko zigun Azurmendik. Haatik, mundu puskatua berreraiki beharrean jarriko gintuen; euskal komunitatea berreraikuntza horren premia larriaz kargutzea beharrezkotzat zekusan. Barandiaranek XX. mendearen hasieran ikusten zituen beharrak azalduko zituen Azurmendik XXI mendearen hasieran. Eta tarteko katebegia izango zen Arizmendiarieta, esklabotza ideologiko eta ekonomikotik ateratzeko herritarrak ahaldunduko zituen kooperatibagintzaren maisua.

Azurmendirengandik erreskatatuko nukeen bigarren esaldia beste honako hau da: «Euskararen hautua herri desegin bat berregiteko hautua da». Hizkuntzan zentratzen duen herriaren muina: izanaren oinarria eta etorkizunaren funtsa. Azurmendik euskaraz eta bakarrik guretzat idatzi zuen. Esklusibitatea edo banakotasuna aitortzea behar eta eskertzen duen herriarentzat. Errelatu bat behar duen eta eraiki behar duen komunitate berriarentzat. «Libertatezko mito pixka bat» aldarrikatzen zuen pentsalariak.

Azurmendiren heriotzak XX. mendeko euskal pentsamenduaren eta pentsalari handien aldia itxi du, baina ez gaitu, hala ere, umezurtz utzi. Gure markotik pentsatzen erakutsi digu eta herri puskatua izateari uzteko baliabidez hornitu gaitu, gure hizkuntza propioan. Euskal komunitate berriak behar duen narratiba beregaina eratze bidean, utopia eraikitze tenore eta premia betean.